

Natur Zientzien izaera ezagutzeko ondorengo enuntziatuak proposatzen zaizkizu. Zuzenak al dira? Okerrak al dira? Partzialki zuzenak? Partzialki okerrak? Azal ezazu.

1 Ezaguera teorikoa eguneroko behaketaren aurretik doa. Behaketaren azalpenak teoria baten arabera egiten dira. Behaketak eta esperientziak teoriaren bat onartzeko edota egiaztatzeke egiten dira.

2 Naturak bere legeak ditu eta zientzialariek aurkitu besterik ez dituzte egiten.

3 Teoriak, Unibertsoaren jokaera azaltzeko eta arazoak gainditzeko giza jakinduriak, libreki, sortzen (eraikitzen) dituen suposizio espekulatibo eta behin-behinekoak dira.

4 Zientziak munduari buruzko egietara eramaten gaitu.

5 Zientziak historikoki eboluzionatzen du, behaketa datu gehiagoetara erantzuten duten egiazko teoria jarraikien pilaketaren bidez.

6 Zientzia saiakuntza eta erroreari esker aurreratzen du, proposamen teoriko eta erreputazioei esker. Arazoak gainditzeko egokiak diren teoriak bakarrik diraute bizirik.

7 Esperientziak egin aurretik zientzialariek ez dakite nola amaituko diren.

8 Giza pertzepzioarekiko independentea den kanpoaldeko mundu erreala deskribatzen dute teoria zientifikoek.

9 Praktikan emaitza esperimentalei esker bakarrik egiten da kompetentzian dauden teoria zientifikoaren aukeraketa.

10 Behaketa guztiak aurretik existitzen diren teoriak finkatzen dituzte

11 Zientzia aktibitate neutroa da (kutsatu gabea), faktore psikologiko, sozio-historiako eta ekonomikoetatik aske dago eta aurreiritzi gabeko ezagutza librea ekoizten du.

12 Ekonomiak eta politikak finkatzen du ikerketa zientifikoa.

13 Zientzien prozesuak kontsiderazio moral eta etikoekin ez dute inongo erlaziorik

14 ezagutza zientifikoaren sorketan giza emozioek ez dute parte hartzen

15 Imajinazioa eta intuizioari esker sortzen dira teoria zientifikoak, gutxiago emaitza esperimentalen inferentzia gisa.

16 Ezagutza zientifikoa ezagutza neutroa da. Eguneroko bizitzan egiten diren aplikazioak soilik irizpide etikoak erabiliz finkatzen dira.

17 Giza pertzepzioarekiko independentea den kanpoaldeko mundu erreala deskribatzen dute teoria zientifikoek.

18 Praktikan emaitza esperimentalei esker bakarrik egiten da kompetentzian dauden teoria zientifikoaren aukeraketa.

19 Aurretik existitzen diren teoriak finkatzen dituzte behaketa guztiak.